BIZITEGI ERAIKINA — USANDIZAGA 21

C MAILA





Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1926

Deskribapena

Usandizaga 21eko eraikinak interesa du Cortazarren ibilbidean. Batik bat, dekorazio xehetasunen ugaritasunagatik, eta fatxadaren formek duten sakonera eta erliebeagatik nabarmentzen da; horien banako balioagatik baino gehiago. Eraikinaren berezitasuna fatxada aurreratuaren bolumenaren efektua da (galerien eta begiratokien bidez). Horrek atzeko baoen eskala handiko markoa osatzen du, arku eliptikoan edo Migel Imazerako fatxadaren leihoburuan ikus daitezkeenez. Jatorriz, behe oina, tarteko oina eta sei goi oin ditu, azkena atzeraemana.

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:
A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: arotzeria.
B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: basamentuaren harlandua eta dekorazio entokatuak.
C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
D.- Nahitaezko lehengoratzeak: hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotuak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.